





AZPEITIA



Euskal  
Antzerki Topaketak

2011ko udazkena







# Barbara

Teloia irekitzear dago. Aurtengoa 39. aldia izango du baina hasierako ilusio berdinarekin egingo du. Euskal Antzerki Topaketaren XXIX. edizioa izango dugu aurtengoa eta urtero bezala, egitarau zabal eta oparoa prestatu da herritarrek eta kanpotik etortzen direnek ahalik eta gehien goza dezaten.


Azaroaren 4ean hasi eta hilaren 20ra bitartean talde profesional eta amateurrek gaur egungo euskarazko obrarik onenak eskainiko dituzte. Hauen artean, bi estreinaldi nabarmendu nahi nituzke; batetik, Mikel Pagadik, Egoitz Lasak eta Nagorek Aranburuk azaroaren 11an egingo duten 'Bodologuak' eta bestetik, aurtengo Topaketari amaiera emanez, Kukubiltxoren 'Inorako bidaia'.

Herriko taldeek ere ez dute hutsik egingo aurtan, eta azpeitiarrek antzerkirako duten zaletasuna eta abilezia erakutsiko dute. Erika Olaizolak eta Ane Arenasek antzerki alternatiboaren erakusketa egingo dute hilaren 17an gaztetxean eta Azpeitiko Emakumeen Antzerki Tailerreko kideek obra berri bat erakutsiko dute 19an. Ezin ahaztu, Iñaki Bergarak antzerkigintzari egin dion ekarpen guztia eskertzeko asmoz, Txalo saria jasoko duela.

Gainera, Topaketa borobila izan dadin, Soreasu aretoan egingo dira aurtengo antzezlanak. Eta nola ez, guztia euskara hutsean izango da. Euskaraz aritzen diren taldeen eta obrak sustatzea baitu Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketak helburu nagusia. Animatu eta zatoz Soreasura, Antzerkia ikusteko eta gozatzeko aukera ederra izango da eta!

IMANOL AMENABAR  
Kultura Batzordeburua

# EGITARAU azaroa



4, ostirala

## ANTZERKI TOPAHETEN BURKEZPENA

12:00etan  
Soreasu Antzokian

HELDUENTZAT ANTZERKI EMANALDIA

### "LOTSAGARBE"

VAIVEN Produkzioak  
21:30ean  
Soreasu Antzokian

5, larunbata

## HELDUENTZAT ANTZERKI EMANALDIA "LARRIA, KUTXAKORRA eta MENDEBALDEKOR"

TARTEAN  
21:30ean  
Soreasu Antzokian

6, igandea

HARRA eta HELDUENTZAT  
"ILARGIAREN BI ALDEAN"  
HIKA  
18:00etan  
Soreasu Antzokian

11, ostirala

HELDUENTZAT ANTZERKI EMANALDIA  
"BOBOLOGURAK"  
TXINTXETA Ekoizpenak  
21:30ean  
Soreasu Antzokian



12, larunbata

MAHAL-INGURUA:  
"Antzerkia *norentzat?* idaztearen plazera"  
EHAZE- Euskal Herriko antzerki  
zaleen elkartearekin elkarlanean  
12:00etatik aurrera  
Sanagustin Kulturgunean

12, larunbata

HELDUENTZAT ANTZERKI EMANALDIA  
"GURE BIDE GALDUAK"  
DEJABU Panpin Laborategia  
21:30ean  
Soreasu Antzokian

13, igandea

HARRA eta HELDUENTZAT  
"IPUINAREN BILA"  
TXALO  
18:00etan  
Soreasu Antzokian

14/15/16

eskola edo gaztetxoei  
zuzenduriko antzerkia  
11:00etan eta 15:30ean,  
Soreasu Antzokian

Antzerki amateurrari  
zuzenduriko asteburua


17, osteguna

ANTZERKI ALTERNATIBOA  
"EGUZKILORE"  
ERIKA eta ANE  
"MUNSTROA"  
Urki Muguruza  
21:30ean  
Gaztetxean

18, ostirala

HELDUEN ANTZERKI AMATEURRA  
"HAU EZ DA HALKUTA"  
KARRIKA  
21:30ean  
Soreasu Antzokian

19, larunbata

Iraki Bergarari   
Txalo Saria eta Libururka  
biografikoaren aurkezpena (Uztarrria)  
12:00etan  
Sanagustin Kulturgunean

HELDUEN EMAHUME TAILERRA

"LOST AND FOUND"  
(Gauza galduak)  
Azpeitiko Emakumeen  
Antzerki Tailerra  
21:30ean  
Soreasu Antzokian

20, igandea

HELDUENTZAT ANTZERKI EMANALDIA  
AMAIERAKO ANTZERKIA  
"INORAKO BIDAIA"  
KUKUBILTZO  
18:00etan  
Soreasu Antzokian



KIKI. Edizioaren amaiera

**zatoz eta  
gozatu  
antzerkiaz!**

Kartela Iñaki Mariñelarenak  
egin du aurtengo antzerki topaketan  
kartel iragarlea

“ezkutuan egon arren,  
beraiek egiten baitute  
espektakuloapossibleizatea”



Azpeitiko kartel lehiaketara bi aldiz aurkeztu den arren, Iñaki Mariñelarena zumarragatarrak ez du ohiko sariketara aurkeztea. Horregatik, asko poztu da bere lana izatea Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketak iragarriko dituen kartela: “Oso gustura nago. Lehiaketa hau irabazteak beste sariketa batzuetan parte hartzera animatuko nau. Gainera saria oso ona da”.

Diseinu grafiko bidez eginiko kartelarekin irabazi du lehiaketa Mariñelarenak eta bertan, material teknikoa eramateko erabiltzen den kaxa bat agertzen da. Artistak dioenez, aktoreen atzetik ibiltzen diren teknikoei omenaldi txiki bat egin nahi zien, “ezkutuan egon arren, beraiek egiten baitute espektakuloa posible izatea”.



## “LOTSAGABE”

VAIVEN PRODUKZIOAK

Helduen antzerki emanaldia

4 azaroa  
4 ostirala

21:30ean  
Soreasu  
Antzokian

### Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Jatorrizko ideia: Ana Pimenta
- Testua: Garbi Losada eta Felipe Loza
- Zuzendaritza: Dorleta Urretabizkaia
- Aktoreak  
Ainara Ortega  
Asier Oruesagasti  
Kepa Errasti  
Oihana Martitorea  
Erika Olaizola
- Eszenografia eta jantziak: VAIVÉN
- Argia: Iñigo La Casa
- Jatorrizko musika: Iñaki Salvador
- Zuzendaritza laguntzailea: Ana Pimenta
- Euskarazko bertsoia: Nagore Aranburu
- Talde teknikoa: Iñigo La Casa
- Aholkularitza: Javier Gómez Zapiain eta Pilar Ibazeta (Hezkuntza afektivo-sexualean adituak)
- Ehoizpen zuzendaritza: Ana Pimenta.

Ikuskizun honetan gazteek sexuaz hitz egiten dute, beti ere errespetuz eta inolako konplexurik gabe. Hainbat galdera aieratuko dituzte, umorez eta nahiko lotsagabekeriaz; eskenatoki soil, eta arin batean, edozein ikuslegoarengana gerturatuko gaituen mintzaira batekin.

# "LARRIA, KUTXAKORRA ETA MENDEBALDAKO"

TARTEAN

Helduen antzerki emanaldia

5 azaroa  
larunbata

21:30ean  
Soreasu  
Antzokian



## Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Gidoia: Patxo Telleria eta Jokin Oregi
- Aktoreak: Mikel Martinez x 3
- Argiak: Milakamoon
- Musika: Edu Diego
- Eshenografia: Gorka Minguez
- Altrezua: Javi Tirado
- Diseinu grafikoa: Javier Renobales (Txapo)
- Zuzendaria: Jokin Oregi
- Zuzendari laguntzailea: Ruth Guimera
- Ehoizpena: TARTEAN SL

Botikak egiten dituen enpresa pribatu bateko ikerlari pribatuek aurreikuspen pribatua egin dute: lehenago ala geroago gripe suntsigarri bat sortuko da, era natural batez. Laborategiek gaitz berri horren kontrako sendabidea aurkitzerako, miloika pertsona hilko lirateke. Katastrofe hori ekiditzeko nahitaezkoa da naturari aurre hartu eta gripe hura laborategian sortzea, sendabidea ahalik eta azkarren lortzeko. Horrela enpresa pribatu horrek miloikabizitza salbatu... eta bide batez etekin itzela aterako du, beste aurreikuspen pribatu bat ere egin du: baliteke gripe suntsigarri hura era natural batez ez sortzea. Natura kapritxosoa da gero! Alferrikakoa litzateke kasu horretan ikerketetan egindako inbertsio pribatua? Inola ere ez. Laborategi pribatu honek diru pribatua inbertitzen duenean... badaki zertan dabilen. Gaitz berriak eta bere sendabideak nola funtzionatzen duten ikusteko, ezinbestekoa da pertsonekin esperimendu froga pribatuak egitea. Eta horretarako aurkeztu dira gure hiru heroiak... 500 euroren truke. Gaixoak osatzen badira, esperimendua arrakastatsua izango da, zalantzarik gabe. Eta sendatzen ez badira...arrakastatsua ere bai. Baina jakina, arrakasta pribatua izango da.

# "ILARGIAREN BI ALDEAK"

IKA

Haur + Helduentzako antzerki emanaldia

6 azaroa  
Bigandea

18:00etan  
Soreasu  
Antzokian

## Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Dramaturgia eta zuzendaritza: Agurtzane Intxaurreaga
- Aktore-dantzarik: Miren Gaztañaga, Amaia Pascual
- Aktore-akrobata: Maider Yabar
- Koreografa: Mirian Perez Cazabón
- Testuak: Arantxa Iturbe, Agurtzane Intxaurreaga
- Raparen testua: Uxue Alberdi
- Musikaren ardura: Dakala d.j.
- Argiak: Xabier Lozano
- Irudiak: David Bernués
- Jantziak: Ramón García
- Atrezzoak: Jabi Tirado, Mikel Laskurain
- Espazio eszenikoa: Agurtzane Intxaurreaga
- Diseinu grafikoa: Laia
- Ehoizpen zuzendaritza: Hika
- Ehoizpen ekoiztitzailea: Mikel Laskurain, Hika
- Talde teknikoa: Eragin
- Administrazioa: Olite Juaristi
- Banaketa: Portal 71

"Ilargiaren bi aldeak" ikuskizuna familia osoarentzat egokia izango bada ere, 7 urte baino gehiago duten umeei zuzendua egongo da bereziki. Beraiengana gerturatuko diren egoerak, erritmoak eta musika izango ditu oinarri. Eta bi protagonistekin identifikatu araziko ditugu: bietatik izango dute pixka bat. Ez baita egia, denok marraren alde batean edo bestean kokatzen garenik. Kontua da, marraren ze aldetan kokatzen garen jabetzea. Eta alde bakar batean geratu ezkerro zer irabazi eta zer galtzen ari garen konturatzea. Irudi erakargarriak, erritmo eta egoera inguratzaileak eta jolas egiteko modu ezberdinak. Hau dena galdera bat egiteko: gerretara jolastuz benetan dibertitzen zara?



“BODOLOGUAK”

ESTREINALDIA

TXINTXETA  
EKOIZPENAK  
Helduen antzerki emanaldia

11 azaroa  
ostirala

21:30ean  
Soreasu  
Antzokian



### Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- **Aktoreak:** Nagore Aranburu, Egoitz Lasa, Mikel Pagadizabal
- **Ekoizpena:** Txintxeta Ekoizpenak
- **Eszenografia:** Txintxeta Ekoizpenak
- **Argiak:** Karlos Salaberri
- **Argazkiak:** Jose Hernandez
- **Gidoia:** Nagore Aranburu, Egoitz Lasa, Mikel Pagadizabal
- **Zuzendaria:** Anartz Zuazua

Nork esan zuen euskalduna izatea erraza zela? Eta oporretara joatea mundiala dela? Zein kistori bururatu zitzaion elkarte gastronomikoak sortzea? Eta Fox-Terrierrai txubaskeroa janztea?

Galdera hauei eta beste zenbaiteri erantzuteko elkartu dira Mikel Pagadizabal, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu. Serio hartu nahi dituzte gaiak baina, ezin, barrea, algara eta umorea dariola dute-eta.

Dena prest dago. Kasualitatea ordea! Justu emanaldia baino lehen, ezkontza bat izan dute eta funtzioa “bodologo” bihurtuko da. Elegante, zorrotz, petral eta xeble, baina beti umorez gainezka.

Hauxe da “bodologuen” helburua: guk esan eta zuek barre egitea.

# "GURE BIDE GALDUAK"

DEBAJU PANPIN LABORATEGIA

Helduen antzerki emanaldia

12<sup>azaroa</sup>  
larunbata

21:30ean  
Soreasu  
Antzokian



## Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Zuzendaritza: Dejabu
- Testua: Aktore taldea.
- Aktoreak:
  - Urko Redondo
  - Miren Alkala
  - Maria Alonso
  - Iñigo Aranbarri
  - Ainara Gurrutxaga
- Musika: Arantxa Vicedo
- Argi diseinua: Ander Fernandez
- Jantziak: Pat
- Kartela: Ibai Maritxalar
- Banaketa: Sabino Alkorta

70. hamarkadaren azkenetan.Orereta, Euskal Herria.

Kattalin, Nafarroako baserri inguruko herri txiki batetik Oreretara doa bidaian.Osabaren etxera doa bizitzera,Donostian magisteritza ikasketak egiteko.

Garai mugituak dira. Azken urteetan fabrika erraldoiak eraiki dituzte herri askotan. Herrixka izandakoak "hiri" bilakatu dira urtegutxian.

Franco hil berri, Euskal Herria aldaketa sakonak ari da bizitzen. Fabriketan gero eta ohikoagoak dira patroien kontrako liskarrak eta egoera político berriak herri mugimendu antolatu bati egin beharko dio aurre.

Kattalinek,Escuela de Magisterion, Ikastolen mugimenduarekin egingo du topo, eta haren bidez deskubrituko du mundu berri bat, lagun berriak, maitasuna, borroka, ideologia...

# "IPUINAREN BILA"

TXALO

Haur + Helduentzako antzerki emanaldia



13 azaroa  
igandea

18:00etan  
Soreasu  
Antzokian

## Fitxa artistikoa eta teknikoa:


- Egilea: Juan Pedro Romera
- Itzulpena: Inma Infiesta
- Aktoreak:  
Iraitz Lizarraga  
Aitor Fernandez
- Musika: Balkanetako Musika
- Eszenografia: Fernando Vidal
- Eszenografi egilea: Luis Hormaza
- Jantzien diseinua: Cristina Martinez
- Argiztapena: Andoni Mendizabal
- Teknikoa: Arnaitz Anglade
- Argazkiak: Aitor Jorge
- Hartela: Aitor Jorge
- Aholkularitza juridikoa: Hator
- Aseguragintza: Fremap
- Ekoizpen exekutiboa: Martin Agirre
- Ekoizpen arduraduna: Xabier Agirre
- Ekoizpena: Txalo
- Banaketa: Ztp Banaketak
- Zuzendaria: Begoña Bilbao

Ipuinek herri bakoitzaren ondarerik onena osatzen dute eta istorian zeharreko gora-beheri biziraun diete kolektiboaren kontzientzian barneraturik daudelako. Familiarteko ikuslegoarentzat den ikuskizun honetan, ipuinez beteriko mundua sortzen dugu kultura bakoitzetik onena eskeiniatz, kontinente desberdinetatik bira egiten duena.

Abenturak bizitzeko nahiez, bi aktoreek ipunen mundua zeharkatzen dute motor ikusezin batean, kontatuak izan daitezzen gauz berriak bilatzeko asmoz. Baina ustekabeak (sakonean gehien desiratzen denak), amaiera ohartezin batetara daramatza, auto baten zozketa barne.

Musika, magia, txantxak eta antzezlanik puruenak, ipuinen mundua zehatz-mehatz eta kultura bakoitzari dagokion adierazpenarekin azaltzelko balio digute. Antzezlan hau une zoriontsuak eta dibertigarriak sortzeko egina dago, etxeko txikienei 'beldurra, jolasa, eguneroko azturak edota pertsonen arteko erlazioak modu errazean ipunekin murgilduta daudela agertzeko.

# ESKOLA ANTZERKIA azaroaren 14-15-16



**14** astelehena

Antzezlanak: DIRUAK SENDATU DAU  
Ordua: 11:00etan  
Ikastetxea: Bermeoko Sagrado Corazón ikastetxea (Bizkaia)  
Antzezleen maila: LH6 maila  
Ikusleak: LH 1-2-3-4-5 eta 6 mailakoentzat  
Iraupena: 15 minutu inguru

Antzezlanak: GAZTERIK ONENAK  
ARANTZAZUKOAK  
Ordua: 11:00etan  
Ikastetxea: Bermeoko Sagrado Corazón ikastetxea (Bizkaia)  
Antzezleen maila: LH6 maila  
Ikusleak: LH 1-2-3-4-5 eta 6 mailakoentzat  
Iraupena: 25 minutu inguru

Antzezlanak: ATARIGARAIA  
Ordua: 15:30ean  
Ikastetxea: Donostiako Zurriola ikastetxea (Gipuzkoa)  
Antzezleen maila: DBH3 maila  
Ikusleak: DBH 1-2 eta 3 mailakoentzat  
Iraupena: 25 minutu inguru

Antzezlanak: TROYA  
Ordua: 15:30ean  
Ikastetxea: Donostiako Zurriola ikastetxea (Gipuzkoa)  
Antzezleen maila: DBH3 maila  
Ikusleak: DBH 1-2 eta 3 mailakoentzat  
Iraupena: 40 minutu inguru

## 15 asteartea

Antzezlanak: KUTSIDAZU BIDEA IXABEL  
Ordua: 11:00etan  
Ikastetxea: Lasarte-Oriako Landaberri LHI  
ikastetxea (Gipuzkoa)  
Antzezleen maila: DBH4 maila  
Ikusleak: DBH 1-2-3 eta 4 mailakoentzat  
Iraupena: 60 minutu inguru

Antzezlanak: POKEMON FESTA  
Ordua: 15:30ean  
Ikastetxea: Azpeitiko Ikastola Ikasberri  
(Gipuzkoa)  
Antzezleen maila: DBH1 eta 4 mailak  
Ikusleak: DBH 1-2-3 eta 4 mailakoentzat  
Iraupena: 20 minutu inguru

Antzezlanak: THE ROYAL BLUE  
Ordua: 15:30ean  
Ikastetxea: Azpeitiko gazteria saila  
(Gipuzkoa)  
Antzezleen maila: DBH1 eta 4 mailak  
Ikusleak: DBH 1-2-3 eta 4 mailakoentzat  
Iraupena: 30 minutu inguru

## 16 asteazkena

Antzezlanak: ROMEO ETA JULIETA  
Ordua: 11:00etan  
Ikastetxea: Bilboko Kirikiño ikastola  
(Bizkaia)  
Antzezleen maila: DBH4 maila  
Ikusleak: DBH 1-2-3 eta  
4 mailakoentzat  
Iraupena: 30 minutu inguru

Antzezlanak: HAIRSPRAY  
Ordua: 11:00etan  
Ikastetxea: Bilboko Kirikiño ikastola  
(Bizkaia)  
Antzezleen maila: DBH3-4 eta  
Batxilergoko 2. maila  
Ikusleak: DBH eta Batxilergokoentzat  
Iraupena: 30 minutu inguru

TRIKITI EMANALDIA  
Ordua: 11:00etan  
Ikastetxea: Bilboko Kirikiño ikastola  
(Bizkaia)  
Antzezleen maila: DBH3-4 eta  
Batxilergoko 2. maila  
Ikusleak: DBH eta Batxilergokoentzat

Antzezlanak: KONTUK ETA KOMERIK  
Ordua: 15:30ean  
Ikastetxea: Azkoitiko Xabier munibe BHI  
(Gipuzkoa)  
Antzezleen maila: DBH3 eta 1. Batxilergo  
maila "bigoterik gabea" taldea  
Ikusleak: LH 3-4-5 eta 6 eta DBH 1 eta  
2 mailakoentzat  
Iraupena: 60 minutu inguru

# “HAU EZ DA KALKUTA”

KARRIKA

Helduen antzerki amateurra

18 azaroa  
ostirala

21:30ean

Soreasu

Antzokian

## Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- **Testua eta Zuzendaritza:** Joxe Martín Urrutia “Txotxe”
- **Eszenografia:** Karrika A.T.
- **Jantziak:** Karrilka A.T.
- **Makharak:** Karrilka A.T.
- **Musika:** Ekaitz Aiartzaguena. “Katza”
- **Antzezleak:**
  - Alaitz Oleaga
  - Joana Ocaña
  - Maite López
  - Irati Iturrate
  - Juan Ramón De la Cruz
  - Uxuri Gallastegi
- Nazaret Froufe**
- Asier Garzia**
- María Leiba**
- Xabier Zaldúa**
- Ion Gorroño.**

Karririk Santa Ageda auzuneko Barren-kale kalea eraiki du oholtza gainean. Kale honetan, auzuneak bat egiten du “HAU EZ DA KALKUTA” dendatxoaren inguruan. Bezero gehienak emakumeak dira, baina ez hala moduzko emakumeak, putak dira, bata besterengatik ezberdinak, bakoitza bere gogo, nahi zein ametsekin. Gaur egun berezia da dendatxoaren jabeak, lkusek, zerbait berezia antolatu bait du. Jakin min handia sortu du auzokideen artean, baina ezuzteko zerbait gertatzen da...

Espektakulo honen bitartez Karrikak heldu bilakatzea nahi du, nagusi, bere betiko markei eutsita beste urrats bat emanez. Taldeak betidanik izan du emakume gorputz zein espiritua eta bertatik abiatuz muntai hau sortu du, taldearen zein ikuslegoaren plazererako.

# "LOST AND FOUND" (Gauza galduak)

AZPEITIKO EMAKUMEEN ANTZERKI TAILERRA

Helduen emakume tailerra

19 azaroa  
larunbata

21:30ean  
Soreasu  
Antzokian

## Lost and found

(Gauza galduak)



### Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- **Gidoia:** Alaitz Olaizola
- **Antzeleak:**  
Aizpea Ibarbia  
Amaia Garmendia  
Haizea Eiguren  
Ane Arenas  
Miren Alcedo  
M.Karmen Borda  
Arroxa Borda  
Ametz Cañizares

- Aiora Olaizola
- Erika Olaizola
- Gurutze Eizmendi
- Garbiñe Barredo
- Ihintza Elustondo
- **Dantzariak:**  
Irene Alberdi  
Uxoia Ibarreta
- **Zirikatzaileak:**  
Alaitz Olaizola

- **Dehoratua:**  
Grupo Langa  
Lakrikun Antzerki Taldea
- **Laguntzaileak:**  
Emakumeen antzerki  
tailerreko kide ohiak  
Lakrikun antzerki taldea
- **Laguntza eta antolakuntza:**  
Parekidetasun Saila  
Emakumeen Mahaia

Gure protagonistak hartzera doazen hegaldia Bartzelonaraino doa. Batzuk, eskala egingo dute bertan, Noruegara, Boliviara, Italiara... abiatzeko gero. Aireportuak, ordea, ezustekoz beterik egon ohi dira, eta gure protagonistak honen lekuko zuzenak izango dira. Litekeena da, bidaiarik luzeena eta arriskutsuena norberak bere barnean egin beharrekoa izatea.

Istant batean gure bizitza alda daiteke, guk hala uste ez arren.

Kaasetik askatasunera garamatzen hegaldia gurekin konpartitu nahi?



# inorako bidaia

Aristides Vargas - Gotzon Barandiaran  
Kukubiltxo

"INORAKO BIDAIA"  
KUKUBILT XO  
HELDUENTZAKO  
AMAIERAKO ANTZERKIA



20<sup>azaroa</sup>  
igandea

18:00etan  
Soreasu  
Antzokian

## Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- **Aktore eta zuzendari:** Aristides Vargas
- **Euskararako egohitzapena:** Gotzon Barandiaran
- **Aktoreak:**  
Marifeli Etxeandia  
Iurgi Etxebarria  
Ainoa Alberdi  
Josu Camara  
Maria Alonso
- **Zuzendariorde eta aktore-teknikaren zuzendaria:**  
Charo Francés
- **Soinu-paisaia, konposatzaile eta interpretazioa:**  
Silva

- **Eszenografia Diseinu grafikoa:**  
Javier Obregón  
Argiztapena  
Javi Ulla
  - **Jantziak eta atrezzoak:**  
Conchi Maoño
  - **Eszenografiaren, atrezzoaren eta tresneriaren sortzaileak:**  
Kukubiltxo Javier Obregón Conchi Maoño
  - **Teknikari-taldea:** Tarima
  - **Argazkiak:** Antony
- Eskerrak Serrano Ekoizpenak eta Mungiako Olalde Aretoari 1950ean ihesaldian parte hartu zutenen sentarte guztiei.

"Inorako bidaia"n, Euskaldun talde batek eginiko bidaian oinarritu gara, hauek 1950eko uztailaren 16an Santurtziko portutik itsasoratu ziren, Mexikorantz. Hemen ere kasu erreal baten aurrean gaude, bidaia hori zenbait artikuluk eta liburu batek kontatzen dute, gaur egun ere senideak, lagunak eta ezagunak bidaia mitikoaz mintzatzen dira eta eztabaidatzen dute, "Montserrat" izeneko belaontzian egindako bidaiaz, muturreko baldintza gogorretan egindako bidaiaz.



12 azaroa  
larunbata

12:00etan  
Sanagustin  
Kulturgunean

MAHAI-INGURUA

MAHAI-INGURUA

MAHAI-INGURUA

“Antzerkia *norentzat?*  
idaztearen plazera”

EHAZE

Hizlariak:

Daniel Landart

Xabier Lopez Askasibar

Jokin Otaegi

Moderatzailea: Oier Guillan

Euskal Antzerkia euskal kulturako arlo bezala ezagutzen dugu guztiok, baina euskal antzerkigintzak ere baditu sail ezberdinak bere baitan: antzerkia lehenik idatzi egiten baita –edo ez–, eta idatzitako testu hau taularatu ahal izateko, lan talde handi baten saiakerak –zuzendaritzak, eszenatokiaren atontzeak, jantzi zein estetika kontuak, argi eta soinu teknikariak, aktoreak...– obra eszenatokira igotzen baitu ondoren.

Atalez atal, herritarrak eta euskal kultur zaleak Azpeitiko Topaketetan antzerkigintzaren esparru ezberdin horiek ezagutzeko parada izatea du gogo EHAZEK. Eta aurten lehenengoz, gogo hori errealitate bihurtu eta, antzerki idazle ezberdinak gonbidatu ditu mahai inguru batetara; antzerkia idaztearen zergati, mota eta egoera ezberdinak kontatu dituzten. Jarraian, denon artean, hizlarien bitartez antzerkia idaztearen zio ezberdinak zeintzuk diren barneratuta, egungo antzerkigintzak idazleekin duen erlazioaz mintzatuko gara, hauen zereginez, egoerez, aukerez eta nahiez...

Hala, Oier Guillan-en laguntzarekin, euskal kultur zaleok, antzerkia idaztearen magia ezagutzera abiatuko gara...




EHAZE

19 azaroa  
larunbata

12:00etan  
Sanagustin  
Kulturgunean

Iñaki Bergara



libururik biografiakoaren  
aurkezpena **uztarria**  
AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Iñaki Bergarak (Azpeitia, 1935) 30 bat urte zituela hasi zuen aktore ibilbidea. Antzerkian lehenengo agerraldia 'Ustekabeko poza' obran egin zuen. Horren ostean, Antxieta antzerki taldean hasi zen. Antxietan 20-22 urte inguru eman zituen eta, ondoren, Lakrikun Antzerki Taldean beste bizpahiru urtean ibili zen. Bertan egin zituen antzerkiko azken urratsak. Antzerkian ibilbide oparoa du, beraz, azpeitiar aktoreak.

Lakrikun taldean zebilela, 'Goenkale' telesailean ere hasi zen lanean, eta hain ezaguna egin duen 'Kaxkurrio'-ren paperean. Garai hartan antzerkia eta telebista partekatu zituen Bergarak. Harrezkero, maiz ikusi dugu telebistan. Besteak beste: 'Balbemendi', 'Brinkola', 'Euskolegas'... saioetan.

Zineman ere hainbat lan egin du Bergarak. 'Aupa Etxebeste' film famatua, esaterako. 'Topeka' eta 'Ostertz' laburmetraietan ere ikusi dugu.

Azpeitiko Antzerki Topaketetan ezaguna da Bergara. Urte askoan antzeztu du topaketetan; Antxieta Antzerki Taldearekin zein Lakrikun Antzerki Taldearekin. Baina antzezten ez duenean ere, oholtzaren beste aldean ikusi izan dugu azpeitiarra, gainontzeko obrak ikusten. Beraz, Azpeitiko antzerkiaren esferan pertsona esanguratsua da Iñaki Bergara 'Pio'.



# Hiretzako azken komedia, Joxin!



**\_Beste urte batez hemen zarete.**

\_Halaxe duk. Urduri gaudek, baina pozik, gogoz.

**\_Zerbait behar al duzue? Hautsontzia? Garagardo bat? Berogailua noiz arte? Bihar zer ordutan etorriko naun atea zabaltzera? Hik badakin, e? Zerbait behar badun lasai eskatu.**

\_Hi inguruan baldin bahabil, ez zaiguk ezer faltako, hori seguru!

Azken urteotako gure arteko jardunak gisa honetakoak izan dituk, eta egia duk, sekula ez zaiguk ezer falta izan.

Hi asko konturatu gabe antzerkian espezialista egin hintzen, eta ziur nagok antzerkia maitatzera iritsi hintzela. Hiretzako amateur zein profesionalak berdinak gintuan, eta hori ez duk beti horrela izaten.

Soreasuko egonaldiak dizkiat gogoan, xarma berezia bazialako antzoki zahar hark, hantxe antzeztu genizkialako gure aurrenetako lanak. Soreasu berriak izango al hau gogoan... Oroitzapenez betetako antzokia izaten jarraituko dik, lehengoaren antzik izango ez badik ere.

Lakrikun antzerki taldearen gidari aparta izan hintzen Soreasu antzokian hire bi arreben konpainian. Gerora Emakumeon antzerki tailerrarekin elkartu gaituk berriro Izarraitz frontoian. Halaxe esaten zian batek: "Antzerki topaketak ez dira berdinak izango Joxin gabe." Eta arrazoia zeukak, demontre!

Eta barreak, hirekin barreak dizkiat gogoan. Han egoten ninduan urduri teknikoen ondoan, ikuskizunerako argiak eta musika antolatzen. Eta hi etortzen hintzen eguneko gertaera edo anekdotaren bat kontatzera. Batarentzako zein bestearentzako bahituen hitzak, hi, nire moduan, kalakaria hintzelako.

Arazo larriak partekatzea tokatu zaiguk, eztabaidaren bat ere bai tarteko. Baina gogoan al duk Lakrikunen estreinaldi baten ostean aitaren elkartean elkarrekin egindako afari eder hura? "Familiakoak" elkartzen gaituk egun handiari amaiera emateko, eta hi han hengoan.

Bizipenak, sentsazioak, sentimenduak ordenan jartzea ezinezkoa egiten zaiguk. Horregatik, idatzi desordenatu honekin agurtuko haugu herriko antzerkizaleok.

**Umoretsua eta aldarte onekoa izan haizelako, hiretzako azken komedia, Joxin!**

*Alaitz Olaizola*

*Urola kostako Hitza 2011ko martxoaren 24a (Laburtua)*

XX  
XX  
XX  
XX

**AZPEITIA**   
**Euskal**  
**Antzerki Topaketak**  
2011ko udazkena

